



Urretxuko udala

MINERAL ASTERAKO BEGIRALEAK AUKERATZEKO OINARRIAK /2018

Urretxuko Udalak 8 begirale kontratatu behar ditu Mineralogia eta Paleontologia Astean antolatutako haur ekintzetarako.

1.- HAUR EKINTZETARAKO BEGIRALEAK eta FRONTOIAN ARRETAKO LANGILEAK

Betebeharreko baldintzak:

- 1.- Gutxieneko adina: 18 urte
- 2.- Gutxieneko formazio maila: DBHn graduatua.
- 3.- Aisialdiko begirale titulua.
- 4.- Euskara: B2 maila egiaztatzea.
- 5.- Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiri negatiboa aurkeztea (Adingabeen Babes Juridikoaren 1/1996 Lege Organikoa, 26/2015 eta 45/2015 Legeek aldatua).
- 6.- Erabat libre egon behar da aurreikusitako egun eta ordutegian

Baloratzea:

- 1.- Haur ekintzetan egiaztatutako eskarmentua.
- 2.- Langabezian egotea.
- 3.- Urretxun erroldatuta egotea.

NOLA BALORATUKO DA:

1.- Haur ekintzetan egiaztatutako eskarmentua.

Begirale lanetan eguneko 0.10 puntu, eta gehienez 15 punturekin baloratuko da.

Eskarmentua egiaztatu behar da "bizitza laboralaren" bidez edota lan-kontratuak aurkeztuz. Ez da baloratuko egiaztatzen ez den eskarmentua.

Kontuan hartuko da ere umeekin egindako lan bolondresa, begirale lanetan, beti ere egiaztatuta. Egiaztariak jarduna, orduak eta epe zehatzak jaso beharko du.

Urretxuko Udalean egindako lanak ez dira egiaztatuko, baina kontutan hartzeko eskaera orrian adierazi behar dira.

2.- Langabezian egotea.

10 punturekin baloratuko da langabezian egotea,

Baloratu ahal izateko "Izen ematearen aldiei buruzko txostena" aurkeztu beharko da.

3.- Urretxun erroldatuta egotea.

5 punturekin baloratuko da.

Kontuan hartu ahal izateko errolda 2018ko irailaren 30a baino lehenagokoa behar da izan. Baldintza hau Udalak berak egiaztatuko du.

Deialdian aurkeztutako izangaiekin barematuko dira baldintzak eta hurrenkeraren arabera lehendabiziko 8 izangaia izango dira aukeratuak. Baldintzak betetzen dituzten gainontzeko izangaiek erreserban geratuko dira sortzen diren beharrak betetzeko.

Berdinketa izanez gero, Urretxun erroldatutakoek izango dute lehentasuna. Berdinketak jarraitzen badu, lan eskarmentuak aginduko du, eta hala ere berdinketak jarraitzen badu, zozketa egingo da.

Lana azaroaren 2an, 3an eta 4an izango da, goizez eta arratsaldez. Halaber, trebakuntzarako ikastaro bat egingo da. Aukeratutakoek derrigorrez egin beharko dute ikastaroa.